

Patxi Etxeberria bertsolaria omendu du herriko Bertso Eskolak /4-5

Bildutakoek giro ederrean gozatu zuten Latitud 43 taldearen kontzertua; musikariak ere gustura aritu ziren.

Xpression Elkartea eta Lasarte-Oriako Gazteria sailak sinatutako akordiaren baitan ostiralean *Latitud 43* talde donostiarrek eskaini zuen kontzertua; udako etenaldiaren ondoren lehenengo emanaldia. Giro ederra eta alai jarri zuten kafetegian. Bildutakoekin hartu-eman polita izan zuten eta txalo zaparrada ederrak jaso zituzten entzu-leengandik •

Giro ederra hasteko

Uda osteko lehenengo kontzertua eskaini zuen ostiralean kulturetxeko kafetegian Latitud 43 taldeak

KIROLA /2

Maialen Chourrautek Munduko txapelketan bizitakoak kontatu dizkigu

KIROLA /2

Martin Egaña eta Santi Garcia VI. Bolo Oroimenezkoa jokatu zen igande goizean

KULTURA /6

Helduentzako aisialdirako aukera zabala euskaraz

Udal Euskaltegiaren egoitza berria inauguratu zen ostiralean

Lehenengo klaseak otsailean eman baziren ere, ostiralean egin zen Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiaren egoitza berria inaugurazio ofiziala.

Ekitaldian Rikardo Ortega Euskara Batzordeko burua, Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatea, Eugenio Mujika HABEko zuzendari berria, Jesus Mari Asurabarrena Udal Euskaltegiko zuzendaria, Udal, zein HABEko ordezkariak eta euskaltegiko ikasleak egon ziren.

Rikardo Ortegak guztiei ongi etorria eman eta "matriku-

lazioei bultzada emateko egin dugu inaugurazioa," azaldu zuen. "Gaur, egun garrantzitsua da euskara biziberritzen ari garengozat," atxiki zuen.

Ostean, Lasarte-Oriako alkateak Udal euskaltegiaren lehenengo egunak gogora ekarri eta euskaltegia hezkuntza eta formazio zentroa izatea espero duela adierazi zuen.

HABEko zuzendariak herri-tar guztiei gonbidapena egin zien "euskara mundura hurbildu edo hizkuntza gehiago ikasi nahi dutenei, Udal Euskaltegiari etorri daitezela." •



Udal Euskaltegiko zuzendariak egoitza berria erakutsi zien Lasarte-Oriako Udaleko eta HABEko ordezkariak

DAKARA JATETXEA

Eguneko menua asteartetik ostiralera

Espezialitatea hostopiletan
Errazioak
Entsaladak
Ogitartekoak

EZ GERATU OSTEGUNETAKO GURE NAZIOARTEKO AFARIAK PROBATU GABE !!

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859

‘Sekulakoa da Munduko Txapelketa batean bigarren geratzea’

Nerea EIZAGIRRE

Maialen Chourraut lasarteoria-tarrak, lehengo astean, Munduko txapelketako bigarren postua eskuratu zuen. Eta aurreko zenbakian aurreratu genuen bezala, harekin hitz egitea lortu eta bertan dugu palista gaztearekin izan genuen solasaldia.

Zenbat urte dira La Seu d'Urgell-en entrenatzen?

Urte asko daramazkit bertan entrenatzen.

Euskal Herrian ez dugu Slalom-erako instalakuntzarik, beraz, Seoraino joan behar izaten dugu kirol honetan aurrera atera nahi badugu behintzat.

Zure ohizko entrenamendu kanala izateak asko eragin al du Munduko Txapelketako bigarren postua irabaztean?

Slalom-eko konpetizio batean lokala izateak lagutzen du. Nahiz eta ondo dabilena, edozein tokitan dabilen ondo.

Taldeko lehiaketan hamaikagarren postuan bukatu zenuen. Espero al zenuten?

Taldeko lehiaketa konplikatur da. Talde bereko hiru enbarkazio goaz elkarrekin jaisten eta sinkronizazioak perfektua izan behar du.

Guk jaitsiera oso azkarra egin genuen. Bigarren denbora hobereena egin genuen, baina taldekide batek ate bat saltatu zuenez, 50 segunduko penalizazioarekin 11. postuan geratu ginen.

Sailkapenetan eta final aurrekoetan lehengo postua lortu ondoren, finalean lasaigo al zinen?

Mundialean lasai egotea ezinezkoa da eta finalean, are gutxiago. Pausuz-pausu joan beharreko konpetizioa da.

Sailkapenetan, lehengo 20etan sartu beharra dago finalerdietarako eta bat, ezin da despistatu. Huts minimoak kanpoan uzten zaitu.

Finalerdietan aldiz, jaitsiera bakar batean lehengo 10etan klasifikatu behar da finalera sartu ahal izateko.

Eta azkenik, finala daukagu, non, lehenago egindako konpetizio guztiak ez duen ezertarko balio. Berdin dio lehenengoa edo azkena sartu. Emaizta, finalean egindako jaitsieraren ondorio izango da.

Nola bizi zenuen finala?

Ahalik eta kontzentratuen. Nire jaitzieran oso sartuta. Ezin nuen burua beste gauzetan despistatu. Ikaragarria izan zen jendeak nola animatzen zuen. Espektakulo polita izan zen.



Urte bete gogor lan egin ostean, eskuratu du zilarrezko domina Maialenek Munduko Txapelketan; orain, atsedena dator.

Penalizazioak urrezko domina galtzea suposatu zuen, zer pentsatu zenuen jakitean?

Metara iritsi bezain laster panel bat genuen non postua eta egindako denbora agertzen zen. Horregatik, momentuan jakin nuen eta ez zidan grazia handirik egin, baina 20 minututan pasa zitzaidan.

Sekulakoa da Munduko Txapelketa batean bigarren geratzea. Eta are gehiago, etxean ospatutako Munduko

Txapelketa batean izateak.

Eta txapelketaren ostean, zer dator?

2008ko urritik daramat Munduko Txapelketa hau prestatzen. Jadanik amaitu da eta orain hilabeteko atsedena dut.

Ondoren, buru belarri berriz ere entrenatzera.

Londreseko Olinpiadak ditut buruan, eta horretarako gogor entrenatu beharra daukat. Olinpiadetarako txartela lor-

tzea oso zaila da, plaza murriztuak baitaude. Eta plaza hori lortzeko, bide luzea egin beharra dago.

Beraz, behin atsedena amaituta, ilusioarekin bueltatuko naiz uretara.

Txapelketaren ostean, Maialenek dioten bezala, atsedendia dator eta gure artean dagoela aprobetxatuz, Lasarte-Oriako Udalak gaur egingo dio herrera pleno aretoan. •

Partehartzaile asko eta giro ezin hobea

■ Martin Retegi, J.A. Montes eta Charo Galan izan ziren garaile

TXINTXARRI

39 bolo jaurtitzailak parte hartu zuten atzo goizean Michelin kirol guneko bola tokian ospatu zen Martin Egaña eta Santi Garcia Bolo oroimenezkoan. Seigarren urtea da Ostadar K.F.ak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz Martin Egaña eta Santi Garcia-ri omenaldia egiten diona.

Beste urtetan bezala, etorritako partehartzaile guztiak ez ziren herrikoak, Segura, Hernani, Urnieta... eta beste hainbat herri ezberdinetatik ere etorri ziren.

Gizonezkoen mailan Martin Retegi izan zen garaile, ondoren Marcelino Aguirre

eta hirugarren Aurelio Santos.

Herritarren artean berriz, Jose Antonio Montesek irabazi zuen, bigarren Jose Antonio Lasa geratu zen eta hirugarren postua Jose Antonio Arroyorentzat izan zen.

Emakumezkoetan berriz, hiru jaurtitzailak bakarrik eman zuten izena. Hala ere, iaz baino gehiago, bakarra apuntatu baitzen, beraz poliki-poliki ari da sustatzen bolo jaurtiketa emakumeen artean. Iazko irabazlea gailendu zen berriro, Charo Galan, bigarren Hernaniko Rosa Santos eta hirugarrena Maitane Egaña.

Giro ederra egon zen goiz osoan zehar eta bertaraturakok ederki pasa zuten. •



Sari banaketaren ondoren, alargunei lore sorta bana eman zizkieten.



Ezkerro argazkian Jalgin kontzertua eskaini zuten Nevermind hirukotea; ezkerrekoan berriz, Trumoi tabernan DJ Grassmanen emanaldia.

LOIDI-BARREN

Kale mozketa San Pedro eliza ondoan

Loidi-Barreneko urbanizazio lanak direla eta, astelehenetik aurrera ibilgailuentzako itxita egongo da Kale Nagusitik Beko kalera doan bidea, San Pedro eliza ondoko bidea.

Oinezkoentzako sarrera, aldez, irekita egongo da, bai kiroldegi aldera joateko eta baita Kalbario bidetik gora joateko ere.

Beraz, Beko kaletik irteko edo kalera sartzeko errotanda berria erabili beharko da. •

IKASTAROA

Arrisku txikiko janari-manipulatuzaile karneta

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat emango du, janari-manipulatuzaileen karneta ateratzeko, arrisku txikiagokoa, txikizkariko sektoreari zuzendua.

Ikastaroa urriaren 14an emango da, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan. Orduetgia 14:00etik 17:00era bitartekoa izango da. Informazio gehiago jasotzeko edo izen emateko, deitu 943 53 33 03 telefonora. •

Gau musikala ostiralean

■ Hiru emanaldi izan ziren, kulturetxean, Jalgin eta Trumoin

TXINTXARRI

Lehenengo orrian azaldu dugun bezala, lehendabiziko kontzertua kulturetxean izan zen, Latitud 43 taldearen emanaldia iluntzeko zortziak aldera hasi zen. Gero, gaueko hamaiketan Jalgin eta Trumoi tabernetan ia batera hasi ziren beste bi musika emanaldi.

Udako oporrak ia ahaztuta, jendea ondo pasatzeko asmoz bildu zen ostiralean.

Nirvanaren bertsoak

Jalgi kafe-antokian Nevermind hirukotea aritu zen jotzen. Eskarmentu handiko musikariak dira Hasier, Haritz eta Jorge.

Hirukote honek Nirvana

talde mitikoaren abestien bertsoak jo zituzten, baina bertso bereziak izan ziren, jazzeko bertsoak. Oso harre-ra ona izan zuten, entzuleak gozaten ari ziren, horregatik bukatzea zihoazela esan zuten, beste bat jotzeko eskatu zieten eta nola ez, hauek jo. Hala ere entzuleak gogoz geratu ziren.

Dja Trumoi tabernan

Trumoi tabernan berriz, herrikoa den DJ Grassman aritu zen musika jartzen. Giro ederra eta alaia ipini zuen DJak tabernan. Jendea dantzan aritu zen edo kantari, baina beti ere umorez eta ondo pasatzeko asmoz. Aitzakiarik ez zen izan beraz ostiralean musikaz gozatzeko. •

Heldu, zein haurrentzako dantza ikastaroak

Lasarte-Oriako Udalak antolatu dituen dantza ikastaroe-tan, dantzaren naturaltasunaren bitartez sentikortasun puntua lortzera bideratzen ditu ikasleak.

Ikastaroak adin ezberdinetarako prestatuak dago, eta adinaren arabera helburu batzuk edo besteak izango dituzte.

Umeen ikastaroak arratsaldez egingo dira. Lau orduetgi ezberdinetan; astelehenena, asteazkena eta ostirala 18:00etatik 19:00ak arte, edota 19:00etatik 20:00ak arte. Eta bestetik, astearte eta osteguna 17:45etik 18:45ak arte edota 18:45etik 19:45ak arte.

Dantza pertsonen beren barnekotasuna adierazteko kanal bat da, eta haurrei sentibiltate hori garatzeko bidea ematen saiatuko dira.

Dantza kontenporaneoak

Helduen ikastaroak, berriz, goizez izango dira. Astelehena,

asteazkena eta ostirala goizeko 10:15etik 11:45ak arte.

Honen helburua eszena ginean egiten den mugimendu koreografiko dramatikoaren eta dantzako eskolan ikasten den mugimendu tekniko desberdintzea da, nahiz biek elkarrekin zerikusia izan.

Dantza kontenporaneoan, teknikak berak prestatzen du koreografiaren eskakizunei erantzuteko aukerak. Mugimenduaren iturburuak trebakuntza

teknikoaren parte bezala irakastean, dantza kontenporaneoak mailarik sakoneneraino lanarazten du gorputza.

Izena ematea

Matrikulatzeko epea, bai umeen bai helduen ikastaroan irailaren 24 arte izango da, Kulturetxean. Lasarte-Orian erroldaturikoak 25,10 euro ordaindu beharko dituzte hilean eta, erroldatugabeak aldez, 43,20 euro. •



Gazte ikastaroetan, sabel dantza da ikasle gehien batzen dituen ikastaroetakoa.

Gazte ikastaroetan izena emateko epea ireki da

Lasarte-Oriako Udalak gazteentzako hainbat ikastaro prestatu ditu 2009ko azken bi hilabeteetarako.

Ikastaro ugari, eta esparru ezberdinekoak daude; bakkorriketak, erakusketara bisitak, batuka, surfari buruzko dena, zen pintura, malabarak, saltsa eta merengea, karikatua eta komikiak, argazkigintza: kamera digitalak, eta sabel dantza.

Parte hartzeko epea irekita dago eta urriaren 2ra arte

gazteentzako informazio bulegoan izena eman ahaliko dute 14 urtetik gorako gazteek.

Ikastaro bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko dituzte Lasarte-Orian erroldatutako gazteek eta erroldatu gabek, aldez, 30 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.lasarte-oria.org helbidean eskuragarri duzue. Mugi zaituzte, ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua baita. •

Aisialdirako aukera zabala euskaraz

Ttakunek eta herriko beste hainbat elkartek denbora librean egin daitekeena jakinarazi dute

Lasarteoriarrek denbora librean beren zaletasuna euskaraz garatzeko aukera dutela jakinarazi dute herriko hainbat elkartek. Ostiral arratsaldean Jalgin egindako agerraldian eman zuten herrian aisialdirako dagoen aukeraren berri Ttakun Kultur Elkarteko eta euren jarduerak euskaraz burutzen dituzten zenbait taldetako ordezkariak: norberak nahi duena eta gustuko duena segur-aski euskaraz egiteko aukera izango du Lasarte-Orian.

JON ALTUNA

Lasarte-Orian ikasturte berrian aisialdi garairako euskaraz zer egiteko aukera dagoen jakinarazi zuten herriko hainbat talde eta elkartetako ordezkariak.

Mailu Arruti, Ttakun Elkarteko kultur dinamizatzaileak adierazi zuenez, "helduek, beren zaletasunetik abiatuta, denbora librean euskaraz aritzeko aukera dute; bakoitzak nahi duena eta gustatzen zaiona egin dezake". Euskaldunen harreman sare bat ireki nahian dabil Ttakun kultur Elkarteak, "gure denbora librean ahali eta ondoen eta jende jatorrenarekin betetzeko" laburbildu zuen Arrutik.

Eskaizta zabala

Horrela hainbat aukera eskaini ziren besteak beste, kantua, dantza garaikidea, antzerkia, batukada, mendi eta kultur irteera edo txangoak, eskulanak, ikastaroak edo besterik gabe kontu kontari egoteko aukera solaskide programari esker: Hemen euskaldun zahar eta berriak elkartzen dira, kafe bat hartuz edo ibilalditxo bat emanaz kontu kontari aritzeko.

Garai honetan egiten dira urte osorako planak eta Mailu Arrutik gonbidapena luzatu zien bai euskaraz ondo dakitenei eta baita ikasten ari direnei eskaintzen dituzten aisialdiko aukeratan parte hartu dezaten. "Euskaraz egin daitezkeen ekintzak asko dira, eta aukera eskaintzen die euskaldunei euren gustukoa bere hizkuntzan egiteko, eta ikaste proze-

suan daudenei nahi dutena egin, euren zaletasunetik abiatuta, euskara erabiltzeko eta hobetzeko". Biak lotzen dira beraz, zaletasuna eta ikasketa.

Ikasturte berrirako asmoak

Jalgin burutu zen prentsurrekoan taldeetako ordezkariak aurreko urteetan egin dutena eta ikasturte berrirako dituzten asmoak jakinarazi zituzten, interesa dutenek aisialdirako zein aukera dituzten jakin dezaten.

Eskulan tallerretan aritu diren Gurutze Irazusta eta Arantzazu Errastik aipatu zuten iaz osatu zutela taldea euskaldun berri eta zaharrek, eta bakoitzak zekien teknika erakutsi ziela besteei: batetik kamisetak margotu zituzten, bestetik hauei toke bitxia eman botoiak edo haritxoak jarri, edota pampinak egin zituzten. Aurten 15ean behin larunbat goizetan Erribera kalean elkartzeko asmoa dute eta orduan erabakiko dute zer egin. Dena den aurreratuz zuten aurtengo helburua taldea iraunkortzea dela eta taldean badirela makramea egiten dakitenak, dekorazioa lantzen dutenak eta bitxigintzan ari direnak, besteak beste.

Solaskide programan ari den Veronica Lopezek eman zuen egitasmoaren berri. Astean behin ordubetez elkartzen dira euskaldun berriak euskaldun zaharrek kafe bat hartuz edo paseatuz kontu kontari aritzeko. Ikasten ari direnentzat euskaldun zaharren laguntza mesedegarri dela aipatu zuen bi urtetan bere



Ikasturtean zehar jarduerak euskaraz burutzen dituzten talde batzuetako ordezkariak Jalgi kanpoan.

euskara maila nabarmen hobetu duen herritarrak.

Asteburuko irteerak

Oñatz taldeko Laura Cespedesek azaldu zuen gero eta txango gehiago egiten dituztela. 2009-2010 hirugarren ikasturtea dute eta bost edo sei irteera aurreikusituz dute. Iaz lau irteera egin zituzten igandetan eta asteburu osoko bat. Batetik mendi buelta lasai bat eman ohi dute eta gero inguruko tokiren bateko historia, kultura edota bitxikeriak ezagutu.

Urriak 4an Donibane Garaizira joango dira Oñatz taldekoak; azaroan Gasteizera; otsaila inguruan Zerainera; ondoren Orozko, Elorrio eta Bergarara; bi egunetako irteera aurten Bardeetara egiteko asmoa dute eta baita, ikasturtea brobiltzeko uztaila bukaeran Boisen AEBetan egiten den euskararen inguruko jaialdira bidaia antolatuz ere.

Xumela Koruko Elena Miguelek azaldu zuen 4. ikasturtea izango dela hurrengoa, oso ondo pasatzen dutela. Landaberriren DBH ikastetxean lagun asko elkartzen direla astelehenero arratsaldeko 19:30etik 20:30era, baina abesbatza kantatu nahi duen orori irekia dagoela, ez dela premiazkoa ahots bikaina edukitzea, alegia.

Antzerki taldeko Kontxu larza eta Pablo Barriok adierazi zuten 8. urtez helduen bi talde izango direla: Astelehenean arratsalde 19:00-21:00 eta astearte goizetan 9:15-11:15. Gazteen taldea ere bada ostiralean 15:15etik aurrera elkartuko dena. Talde hauek ikasturte bukaeran Antzerki Asterako lan bat prestatzen dute, baina Pablo Barriok adierazi zuenez ez da hori bakarrik, "aparte gauza asko ikasten dira, jende aurreko lotsak gaintzeko, edo barruak ditugun trebetasunak

kanporatzeko... Ez da bakarrik antzezlanak, bidean asko ikastena da".

Dantza Garaikidean ari den Junkal Perezek jakinarazi zuen antzerkian bezala helduen bi talde eta gazteen taldea direla. Azkenik batukada taldean den Iñigo Bobillok esan zuen berak sekula musika tresnarik jo ez badu ere, oso erraz ikasi duela eta herritarrak animatu egin zituen ostiralean 19:00 eta 21:00 bitartean batukada jotzera joateko. Hirugarren urtea da taldea martxan jarri zenetik eta bi talde elkartzen dira gazteena eta helduena.

Bestealde Mailu Arrutik beste aukera batzuk ere aipatu zituen, batetik bertso eskola, -ostegunetan 19:00-21:00 bitartean Erriberako lokalean, adin ezberdineko bertso zaleak elkartzen dira- eta bestetik, ekintza puntualak, Inauteriak, San Pedrotako Sorgin Dantza, uztailaren Parodian... •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzo-kian egun osoan zehar.



Asteartea, 22

Aurkezpena

PATXI ETXEBERRIA bertsolariaren bizitzaren LIBURUA aurkeztuko da. Koldo Mitxelena kulturuguean, 12:00etan, EUSKARAZ.



Akordeoi jaialdira Nathalie Boucheix etorriko da


LASARTE-ORIako VI. AKORDEOI JAIALDIA Zero-Setteren eskutik. Aurtengo jaialdiko protagonista Nathalie Boucheix izango da bere taldearekin. Hauetaz gain Zero Sette orkestra eta Xabier Iglesias akordeoijolea egongo dira.

LARUNBATEAN, 26AN
19:30EAN
KULTURETXEAN

Igandea, 27

Omenaldia

BERTSO SAIOA izango da PATXI ETXEBERRIAREN omeneko egunetan. Saioan Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Unai Muñoa, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia, Koxme Lizaso eta Jon Azpillaga bertsolariak hartuko dute parte. Manuel Lekuona kulturuguean, 12:00etan, EUSKARAZ.



Liburutegiko ordutegia

Asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturuguea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Etexeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Oriatarren bazkaria

Urtero legez Oria auzoko bizilagun eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 18an. Txitxardin Beltxa jatetxean izango da eta aurtun Bruneteko eta Oria auzoko praktikante izandako Jose Javier San Sebastian omenduko dute. Bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauetara deitu behar da 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol) urriaren 10a baino lehen.

Amalur eskolak hasi du ikasturtea

Irailaren 2an hasi zuten ikasturtea. Amalur eskolan trikitixa, txistua, panderoa eta bateria irakasten dute. Tresnak ikasiz, musika bizi eta doinu alaiak gozatu! Arratsaldeko 17:30etik 20:00ak arte. Izena emateko deitu telefono hauetara 943

364138 eta 616 447 729 edo eskolatik pasa zaitezke.

Ziteke eskolak hasi du ikasturtea

Irailaren 7an hasi zuten ikasturtea. Ziteke eskolan matematika, fisika, marrazkia, lenguaia, irakasten dute besteak beste. Eta aurtun ere bai nerabe bai helduentzako, informatikako saio bereziak antolatzen dituzte IT txartela lortzeko. Arratsaldeko 16:00etatik-19:00ak arte. Izena emateko deitu telefono honetara 943363106 edo eskolatik pasa zaitezke.

Lasarteko kale-musika eskola abian

Abian da Lasarteko kale-musika eskola! Tronpetak, gitarrak, ijitu kaxa... Ekarki nahi duzun tresna eta kutsa zaitez musikarekin majiaz! Asanblada egingo da irailaren 22an, asteartea, arratsaldeko 18:30ean "Villa Mirentxu"ren aurrean. Animatu adarra jotzea!

Marrazki eta margo eskola

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen

margo eta marrazki ikastaroetako izen-emateko epea zabaldu du. Beraz, interesa duzuenok irailaren 21ean, 23an eta 25ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 7, behe zebakian duten egoitzan.

Kiroldegiko ordutegia

Irailatik aurrera herriko kirol guneen ordutegia honako hau izango da. Kiroldegia, asteleheneretik ostiralera, 7:00etatik 22:30etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeeetan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00tik 12:30etara eta 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00etara eta 16:00tik 20:00etara, igandeeetan 9:00tik 13:00etara eta Michelingo kirol gunea, asteleheneretik ostiralera, 15:00tik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00tik 20:00etara eta igandeeetan 9:00tik 13:00etara.

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar K.F.k jakin arazten du, Futbol Eskolan izena eman duten jokalariek elkarrekin bulegora, Geltoki kalea

25. zenbakira, gerturatu behar direla dokumentazioaren bila.

Tenis eskola

LOKEko Tenis eskolak irailaren 14an, astelehena, emango dio hasiera 2009-2010 ikasturteari. Tenis eskola 7 eta 16 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago. Eskolarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, irailaren 14tik aurrera eta arratsaldeko 18:30etatik aurrera Mitxelingo kirol gunera hurbil zaitezke.

Igeriketako ikasturtea abian

Buruntzaldea I.K.T.k ireki dugu jadanik 2009-2010 ikasturteko matrikulazioa. Izena emateko jo udal kiroldegira 18:00etatik 21:00ak bitarte edo deitu Ruben Villalon entrenatzaileari (696 506673). Adinaren arabera entrenamendu egunak eta ordutegian desberdinak izango dira: 96koak egunero 19:00etatik 21:15era; 97koak, astelehena, astearte, ostegun eta ostiraletan 19:30etik 21:15era; 98-99an jaiok, astelehena, asteazken eta osti-

raletan 18:00etatik 19:30era; 2000koak astelehena, asteazken eta ostiraletan 18:30etik 19:30era; 2001ekoak astearte eta ostegunetan 18:45etik 19:30era eta 2002an jaiok astearte eta ostegunetan 18:00etatik 18:45ak arte. Animatu eta etorri gurekin igeri egitera.

Gimnastikako entrenamenduak

LOKEko gimnastikako neskek entrenamenduak hasi dituzte, 7 eta 8 urteko neskatok izan ezik, urriaren hasten direla. Gimnastika egin nahi duten neskek irailaren zehar eman dezakete izena entrenamenduetan, osteguna eta ostiraletan, 19:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 13:30era. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri zaitezte harremanetan Maite Rueda entrenatzailearekin, 676 872 029 zenbakian.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

VI. Akordeoi Jaialdia larunbatean

■ Nathalie Boucheix eta Xabier Iglesias izango dira *Zero Sette*-ren gonbidatuak

TXINTXARRI

Zero Sette akordeoi orkestrak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen duten Akordeoi Jaialdiak larunbatean, irailaren 26an, 19:30ean izango du leku Manuel Lekuona Kultur etxean.

VI. edizio honetan, Lasarte-Oriako orkestraz gain, Nathalie Boucheix frantsesa eta Xabier Iglesias lasarteoriatar gaztea izango ditugu aretoko taula gainean.

Nathalie Boucheix

Frantziako Musika eta Akordeoi Zentro Nazionala eta Internazionalaren zuzendari eta fundatzailea dugu Nathalie Boucheix.

Munduko txapeldun izan zen 1994ean eta, besteak beste, 2003an, SACEMeko Francis Baxter saria eskuratu du.

Bigarren aldia dugu gure artean. Izan, ere, orain dela 2

urte, IV. Akordeoi Jaialdian lortu zuen arrakastaren ondorioz, *Zero Sette* akordeoi orkestrak berriro gonbita egin baitzuen edizio honetan parte-hartzeko.

Xabier Iglesias

Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasle ohia dugu Xabier Iglesias lasarteoriatar gaztea.

Hainbat sari eskuratu zituen ikasle garaian bakarlarigisa, hauen artean aipagarrienak, 1999an Arrasateko Akordeoi Jaialdian lortutako urrezko domina eta aipamen berezia.

Egun Madrilen Ingenieritza Aeronautikoa ikasten ari da.

Programa

Xabier Iglesiasek emango dio hasiera jaialdiari eta bere irakaskale ohiaren, Iñigo Peñaren *Impaciencia* eta J. Mecer-eren *Autumn Leaves* abestiaren konponketa eskainiko ditu.

Nathalie Boucheix eta

bere taldeak entzuteko aukera egongo da ostean. Era guztietako obrak akordeoi-jole frantsesak edizio honetarako aukeratu dituenak, hala nola, Lorenzoniren *La Parisienne à Seville*, Velasquez-en *Besame Mucho*, A. C. Jobimen *La fille d'Ipanema* edo *La Cucaracha*.

Azkenik, *Zero Sette* akordeoi orkestraren txanda izango da. Elias Gokourriaren zuzendaritzapean, Rossiniaren *La Gazza Ladra* obraren *Obertura* eta Iñaki Urkizuren euskal poutporria, *Dantzaldia* joko dituzte.

Sarrerak

Akordeoi Jaialdi paregabeaz gozatzeko asmoa dutenek sarrerak erosteko aukera dute dagoeneko.

Hauek 3 eurotako balio dute eta Manuel Lekuona Kultur Etxeko harreran eskura daitezke, goizez 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara. •



Nathalie Boucheix, berriro ere, gure artean izango da larunbateko Jaialdian.

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
% 40 - % 75
2009-10

ona eta merke

Edozein
lasarteoriatarrentzat
matrikularen %40
arteko diru-laguntza.

Gurasoentzat,
merkatariarentzat eta
begiraleentzat %75
artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Be ko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 20ra

Munterri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@ae.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

